

Francis Bartolozzi (Madril 1908 – Iruña 2004) artisten biloba, alaba, emazte, ama eta amatxi dugu, jatorria Toskanako Lucca hirian daukan pintore eta sortzaile familia handi bateko kidea.

Bizitza luzea izan zuenez, bere jardunbide profesionalak etapa ugari eta nondik-norako anitz izan zituen XX. mende osoan zehar. Bestetik, emakumea izanik, Espainiako egoera artistikoan aitzindari bihurtu zen bere garaiko beste lankide batzuekin batera, hala nola Maruja Mallo, Remedios Varó eta Delhy Tejero.

Francis, giro liberalean eta Institución Libre de Enseñanza-ren espiritu askean hezia, bere pentsamolde moderno eta aurreratuarengatik nabarmendu zen beti. San Fernandoko Arte Ederren Akademian ikasi eta gero, Madrilen ekin zion bere langintzari, 30eko hamarkadan. Salvador Bartolozzi bere aitaren eraginpean, hurrendako ipuinak (Calleja argitaletxea) eta komikiak (Canito y Peladilla) irudiztatu zituen, eta eszenografiaren alorra landu (García Lorcaren eta Vallé Inclanen obretarako, besteak beste). Bestalde, senarrarekin batera, Pedro Lozano de Sotés margolaria bera, Misio Pedagogikoen hezkuntza eta kultura ekimenean hartu zuen parte. Urte haietan hasi ziren finkatzen bere interes estetikoak: haurren mundua eta laborariak. Aldi berean, orduan bereganatu zituen bere baliabide estetiko nagusiak: marrazketa librea eta espresionista, kolore distiratsuak, iruditeria surrealista...

Gerra Zibilak haustura ekarri zion bai bizitzan bai langintzan. Gerra urte haietan Madrilen eta Valentzian bizi izan zen eta, ondoren, Iruñean kokatu zen, senarraren sorlekuan. Francis, lanak sinatzeko Piti edo Pitti ezizenak ere baliatu baitzituen, kanpo erbestealdi benetako batean murgildu zen. Lan artistikoan aritzeaz gain, familiaz arduratu zen, irakaskuntzan jardun zuen eta senarrarekin elkarlanean ere aritu zen, baina ez beti agerian. Horma-pintura landu zuen gehienbat (elizak, ikastetxeak, saltokiak...), komikia eta ilustrazio grafikoa (El Capitán Trompeta y el marino Trompetín...), eszenografia eta jantziteria (Aita Carmeloren obrak, Duguna, Obanosko Misterioa...) erakusketak... Idazle lanetan ere aritu zen oparo: ipuinak, iritzi artikulak, antzerki lanak...

Azkenik, demokraziaren etorrerarekin batera, askatasun etapa berri bati ekin ahal izan zion bere lanean. Ordutik aurrera, aurreiritzi sozialen eta laneko zereginen zamarik ez zuela, segurtasun handiagoz zabaldu zuen bere sormen indarra, eta lan asko eta askotarikoak egin zituen, artistaren fantasia eta irudimen originalaz hornituak beti.

Mikroerakusketa honetan *Gerrako marrazkiak* serieko hainbat marrazki ditugu ikusgai, Nafarroako Museoaren bildumakoak guztiak. Serie horretako hamasei obra Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalean daude gaur egun, gordailu hitzarmen baten bidez. Museoak txandaka erakutsiko ditu hurrengo bost urtean.

Pedro Luis Lozano Úriz